

Galdera

Gaur, joan egin naiz / Gaur joan naiz; Liburua jausi egin zait / Liburua jausi zait: zein da horien arteko aldea? Noiz erabili behar da egin hori?

Erantzuna

Aditza galdegaia bada (informazio berria dakarren osagaia edo azpimarratu nahi den atala), hau da, aditzak adierazten duen ekintza nabarmendu nahi bada, *egin* aditz fokalizatzailea sartzen da tartean, aditz perifrastikoa denean. Erabilera orokorra da. Baina ez da usua Ipar Euskal Herriko eta Nafarroako euskalkietan.

Eman dezagun joan-etorrian ibiltzen naizela Iruñea eta Bilbo artean, txandaka, egun batean joan eta hurrengoan etorri:

- | | | |
|--|---|--|
| ● <i>Gaur, joan egin naiz (ez etorri)</i> | ≠ | ● <i>Gaur joan naiz (ez atzo)</i> |
| Galdegaia: <i>joan</i> | | Galdegaia: <i>gaur</i> |
| ● <i>Bihar, etorri egingo naiz (ez joan)</i> | ≠ | ● <i>Bihar etorriko naiz (ez gaur)</i> |
| Galdegaia: <i>etorri</i> | | Galdegaia: <i>bihar</i> |

Galdera desberdinak dautza perpaus horien azpian: ZER ekintza (*joan, etorri*) eta NOIZ (*gaur, bihar*).

Eman dezagun liburua eta tableta darabiltzadala, liburua erori zaidala eta lagunari kontatzen diodala:

- | | | |
|--|---|--|
| ● <i>Liburua jausi egin zait (ez dut bota)</i> | ≠ | ● <i>Liburua jausi zait (ez tableta)</i> |
| Galdegaia: <i>jausi</i> | | Galdegaia: <i>liburua</i> . |

Galdera desberdinak dautza perpaus horien azpian: ZER ekintza (*jausi, bota*) eta ZER (*liburua, tableta*).

Mendebaldean, orobat, aditz trinkoa bada, aditz-partizipioa jartzen zaio aurretik aditz jokatuari:

Ekarri dakar (ez eroan).

Adi: *Jakin daki* (*jakin* galdegaia) ≠ *Jakin, badaki* (*jakin* mintzagaia)

1/ Gehiago jakiteko:

Euskara Batuaren Eskuliburua

[galdegaiaren legeak](#)

IRALERen Kontsulta Zerbitzua

['Egin' aditz fokalizatzailearekin, aldatu egiten da aditzaren erregimena?](#)

['Egin' aditza: noiz jarri behar dugu aditz baten ostean?](#)